



ATAZA - VALDEREJO

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



-Valderejon dagoen hegaztirik ikonikoena **sai arrea** da. Zoritxarrez, badirudi haien kopurua behera egiten ari dela azken aldian. Egoera bereziki larria iruditzen zaizue eta ikertzea erabaki duzue eta ondoren, taldekideei azaltzea.

-Helbide hau lagungarria egingo zaizue: <https://nortexpres.com/alava-pierde-buitres/>

Lanaren nondik norakoak:

- Bildu informazioa sai arreari buruz:
 - a) Ezaugarri fisikoak, ohiturak, ugalketa, elikadura...
 - b) Habitata: Banaketa geografikoa, ingurumen-baldintzak eta ekosistemako beste elementu batzuekiko harremana.
 - c) Kontserbatzeko mehatxuei buruzkoa.Erabili iturri fidagarriak eta erregistratu erreferentziak.
- Idatzizko zirriborro txiki bat prestatu, gero ahoz gelan azaltzeko, taldekideen artean banatuta:
 - a) Sarrera: zertaz hitz egingo duzuen eta sai arrearen deskribapen fisikoa.
 - b) Azaldu zein den espeziearen habitata eta ohiturak.
 - c) Zein den haren egoera eta zer datu dauden beherakada eman dela pentsarazteko.
 - d) Zer neurri izan daitezkeen egokiak zuen ustez. Zer egin dezaketen erakunde politikoek edo hiritarrek.
- Idatzizko zirriborroak gutxienez 200 hitz izan behar ditu; erabilitako informazio-iturriak idatzita utzi.
- Zirriborroa ahozko aurkezpenaren aurretik irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan. Zuzenketak egin ondoren, audioa grabatu ahozko aurkezpenaren aurretik.